

Joan Mari IRIGOIEN

POEMATXOAK

AMODIO BATEN KRONIKA IRAGARRIA

Hasieran
bi bide izan ziren.

Gero,
bidegurutze bat.

Azkenik,
gurutzbidea.

ETXE POLIT TXOKOLATEZKOAK

SOS, gazteak etxebizitza nahi,
baina, SOS, gazteak sosik ez...

SOS honi eta SOS hari,
laguntza ofizialeko
etxe-sosketa batean
bukatu du azkenik...

Gazte-gaztea da,
gazteropodo bat, alegia,
etxea arrastaka daramana,
eraman beharko...

Joan Mari Irigoien

KATE-MAILA GALDUA?

Zortzi egunetan bizi daiteke
labezomorroa,
bururik gabe.

Gizakia, egun bakar batean ere ez.

Edo bizitza osoan...

EDIPO KONPLEXUA

Aukeran,
titi batetik zintzilik hil nahiago
soka batetik baino.

SEKRETU BAT AGERIAN

Adarrak jarri zizkidan,
baina ahari naiz ikasten...

EURO ESKE ZEBILEN GAZTEAREN EUROESKELA

Hark ere
aurrezki hilkutxan
hipotekatu zuen bere etorkizuna...

LAU PUNTAKO IZARRA GAU BELTZAREN IKUR

Militarrek
lehengo lepotik burua,
burua lepotik noiz kenduko...

TXURIURDIN ETSI BATEN EPITAFIOA

Lehoia jan nahi nuen,
lehoiak jan ninduen.

Joan Mari Irigoien

HETEROEREKTOAK

Erektosexuala zen
eta emakumez emakume zebilen,
ezinbestean...

KATILUZALE

Putzura bota zuen bere burua,
hondorik gabeko putzura:
nik, katilu batean nahiago...

ERLATIBITATEAREN TEORIA

Pizkundera baino
pixkundera premiazkoagoak zituen
prostatitisak jotako gizonak, antza...

PARADOXA

Athletikzale daltonikoaren zoritxarra:
hain zen atletikzalea,
Betiseko bazkidea egin zen...

EUSKAL IPUINIK LABURRENA,
(Augusto Monterroso gogoan)

Behi batean, mu.

AUTOESTIMUA

Esan nion:
"Gehiago fidatzen nauk hitaz
neure buruaz baino".
Laguna pozik joan zen.
Motiborik gabe, nik uste...

AUDITZ-AKULAR

Gero eta sinetsiago nago,
zoritxarrez,
partiduak enpresa batzuk direla,
eta udaletxeak
enpresen arteko enpresak,
negozia
—negozio inmobiliarioa batez ere—
helburu dutenak.

Hori bai,
marketingean adituak dira oso,
eta apaingarriak jartzen dizkiete
beren produktuei,
hemen babes ofizialeko etxeak
eta han extraofizialekoak,
etxetxo politik,
goxokiak bezalakoak,
zilarrezko paperetan bilduak...

Sozialismoa ere
loteriako zenbaki bihurtu duten
merkatari berrien
aro berri honetan, ordea,
lurra nahi dut nik opari,
lurra nahi dut goxoki,
lurra baitut ostadar,
lurra taupada,
sistole eta diastole,
Auditiz-Akular,
Auditiz-Akular...